

## OGP EUSKADI 2018-2020 PLANEAN HAUTATUTAKO PROIEKTU PILOTOAK

### 2020KO PILOTOAK

#### THINKING FADURA

*Lidergoa* Getxo Kirolak

*Laguntzailea* Komunikatik

#### Pilotoaren helburuak:

Thinking Fadura parte-hartze prozesuan detektatutako premia bat dago: itzaroteko – eremuak eta Fadurako eraikinean daude ikasketa-lekuak hobetzea. Ekonomia zirkularraren printzipioen pean eta espazioarekin zerikusia duten eragile guztiak barne hartuta, espazioa eta altzariak batera diseinatzea da helburua, prototipoak egin eta probatu ondoren, Fadurako azterketa-espazio osora hedatu ahal izateko. Gutxienez, laborategi honen bidez elkarrekin sortutako irtenbide bat edo irtenbidearen prototipo bat definitu nahi da.

Thinking Fadurako proiektuak laborategiko logiken pean garatzen dira, eta horiek harreman-espazio edo -dispositibo gisa ulertzen dira. Komunitate bateko hainbat kideren artean, erronka zehatzei heltzen diete, probatzekoak diren irtenbide berritzaileak aplikatuz eta, arrakasta izanez gero, eskala handiagora zabalduz edo /eta beste ingurune batzuetara transferituz. OGP Euskadi aukera bat da laborategitik ikaskuntza berriak probatzeko edo ateratzeko: herritarren parte hartze prozesuek tokiko administrazioak dituen “egiteko moduetan” izan dezaketen eragina ebaluatu nahi dugu. Jakin nahi dugu herritarren parte-hartzeak zenbateraino eragiten duen politika publikoen diseinuan eta betearazpenean, eta zer-nolako eragina duen arlo zehatz batzuetan, hala nola kontratazioan, hirigintzan, herritarren arretan, instalazioen mantentze-lanetan eta abarretan.

**Transferentzia elementuak:** Lau lan-fase proposatzen dira: **1) Ebaluazio-arloak identifikatzea.** Erakundeak prozesuan duen inplikazioa, emaitzarekin duen lotura, emaitzaren kalitatea (plegu teknikoak) eta barne-kulturaren aldaketa **2) Adierazleen definizioa.** Prozesuaren eta emaitzaren adierazle zehatzak definitzea. **3) Datuak biltzeko mugarriak hautatzea.** Laborategia diseinatu ondoren, zehaztutako adierazleak jasotzen diren uneak finkatzen dira. Aldez aurretik, prozesuan zehar eta jarraipen-testaren ondoren. **4) Azken ebaluazioa.**

#### ILAB REKALDE

*Lidergoa* Bilboko Udaleko Herritarren Arreta eta Partaidetza saila

*Parte-hartze zuzena* Errekaldeko Barrutiko Kontseilua

*Laguntzailea* Erabakitzeke

#### Pilotoaren helburuak:

Proiektu honen helburu nagusia etorkinek Errekalden duten partaidetza handitzea lortzen lagunduko duen eta beste auzo, barruti eta udalerrri batzuetara transferigarria izango den prozesu bat diseinatzea eta esperimentatzea da.

Helburu nagusia abiapuntu izanik, eta OGP Euskadiren testuingurua, iLab konpromisoa eta Errekalderako udal-estrategia aintzat hartuz, honako helburuak zehaztu dira:

**1.- Ezagutzea eta informatzea;** egungo errealitatea ezagutzea, eta barrutiko aniztasuna eta taldeen eta taldeen arteko harremanaren garrantzia balioestea, parte-hartze informatua bermatzeko eta prozesuak arrakasta izan dezan funtsezkoak diren pertsonen kopuru eta

aniztasun zabalenaren parte-hartzea lortzeko. Ildo horretan, bereziki garrantzitsua da barrutiko kontseilua eta herritarrek parte hartzeko dauden beste bide eta tresna batzuk ezagutzea, biztanleriaren zati batek ez baitu horretarako aukerarik.

**2.- Esperimentatzea, kontrastatzea eta adostea;** hausnarketara, eztabaidara eta ideiak ekartzera bideratutako hainbat ekintza eta tresna probatzea, eta partaidetzan berritzea, sarean parte hartuz, eta berrituz berritzea; hainbat ikuspuntu kontrastatzea eta adostea; elkarrekin sortuz herritarren partaidetzarako tresna berriak gaitzea, etorkinen hurbilketa errazteko, eta Barrutiko Kontseiluaren lana indartzea, herritarren parte- hartzerako organo eta tresna gisa.

**3.- Ebaluatzea, hedatzea eta transferitzea;** prozesuaren emaitzak eta ekarpenak ebaluatzea eta zabaltzea, elkarre-mugimendua eta auzoan gizarte-dinamizaziorako duen rola indartzeko, partaidetza-prozesua modu sistematizatuan transferitu ahal izateko. Prozesua transferigarria da gaiari dagokionez (etorkinen parte-hartzea), bai eta prozesuari berari dagokionez ere.

**Transferentzia elementuak:** **1)** Prozesua prestatzeko metodologia eta sistema (prozesurako oinarriak ezartzean datza: abiapuntuko dokumentazio teknikoa bildu eta aztertzean, egoerari buruzko lehen ezagutza izateko), **2)** Esperimentazioa (parte hartzeko kanalak, tresnak eta ekintzak abian jarri eta garatzea: presentzialak eta digitalak; kontsultazkoak (inkestak, elkarrizketak) eta adostasun-eraikuntzakoak (tailerrak eta eragile anitzeko saioak); instituzionalak (barrutiko kontseilua). **3)** Transferentzia eta ebaluazioa (prozesuaren emaitzen analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa, adierazleetan eta jasotako ekarpenetan oinarrituta). Lana, prozesuaren memoria batean islatuko da, eta memoria horrek gertatutakoa jaso eta emaitzen sintesia eta balorazioa /hausnarketa jasoko ditu. Bestetik, prozesuaren transferigarritasunari eta berezitasunari buruzko memoria bat ere sortuko da, laburragoa, pertsona migratuek aktiboki parte hartzeko kontuan hartu beharreko gakoak emango dituena. Fase honetan ere parte-hartzaileei itzulketa eta emaitzak zabaltzea txertatzen da, beste auzo, barruti eta udalerrri batzuetara transferitzen laguntzeko.